

Aizkorri Mendizale Elkarte. Aralarko pista berriak

Gertatutakoa:

Enirio-Aralar Mankomunitateak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, Aralarko Parke Naturalean 4,4 km luzerako pista egiteko erabakia hartu zuen, Enirioko Intzensao izeneko tokitik Saltarriko mangaraino 5 txaboletatik pasatuz. Aukera bat bakarra erabili dute bidearen ezaugarriak erabakitzekoan. Pistaren zabalera 3 metrokoa izango da, 4x4 kotxeak atoiarekin (remolkearekin) ibiltzeko; tarteka bi kotxe gurutzatu ahal izateko zabalera bikoiztuko egingo da eta kurbetan ere zabalera 3 metro baino handiagoa izango da; Elutxeta inguruan 100 metro luzera eta batezbeste 5 metro altuerako uharridi edo eskoileraren gainean joango da pista; zoruan balasto edo legarra eta zagorra (todounoa) botako dute.

Legez lurzorua mugitzea debekatuta dagoen Aralarko zatian ari dira pista egiten urriak 17 gozotik. Pista zati batzuetako maldak %28rainokoak dira legeak gehienez %10koa onartzen badu ere.

Proiektua justifikatzeko esan dute artzainen eta abeltzainen lan baldintzak hobetzeko dela. Mankomunitatearen kudeaketa erabat abeltzainen interesen menpe dago.

Aralarko artzain eta abeltzainek dirulaguntza dute ganadua Parke Natural baten izateagatik: 2014n 1.500.000 euro banatu zitzaien.

Beasaingo udala pista hau egitearen alde azaldu da.

Mankomunitateko gehiengoak 15 km baino gehiagoko luzera izango luketen pista berriak 2017n eraikitzearen alde bozkatu zuen urriaren bukaeran. Beasaingo udalak aldeko botoa eman zuen.

Aizkorri Elkarteari ez dio inork iritzirik eskatu obra hauei buruz.

Aizkorri Mendizale Elkarte. Construcción de pistas nuevas de Aralar

Los hechos:

La Mancomunidad de Enirio-Aralar, con la ayuda de la Diputación Foral de Gipuzkoa, tomó la decisión de construir una pista de 4,4 km de longitud en el Parque Natural de Aralar, entre Intzensao (Enirio) y la manga de Saltarri (Alotza) pasando por 5 chabolas. Sólo han barajado una opción a la hora de determinar las características de la pista: 3 metros anchura para circulación de 4x4 con remolque; en su recorrido habrá puntos en los que se duplicará su anchura para poder cruzarse dos vehículos; en las curvas también se superará la anchura de 3 metros. En las proximidades de Elutxeta la pista discurrirá sobre un muro-escollera de 100 metros de longitud y una altura media de 5 metros. En el firme de la plataforma de rodadura se empleará balasto y todo uno.

La obra se inició el 17 de octubre en una zona de monte protector donde por ley está prohibido remover el suelo. La pendiente de algunos tramos de pista llega hasta el 28% cuando la ley pone el límite máximo para los mismos en el 10%.

La Mancomunidad ha justificado la pista manifestando que ello mejorará las condiciones de trabajo de los pastores. La gestión de la mancomunidad está en manos de quienes quieren favorecer los intereses de los ganaderos.

Los pastores y ganaderos de Aralar reciben ayudas económicas (1.500.000 euros en 2014) por tener su ganado en el Parque Natural.

El ayuntamiento de Beasain además de votar a favor de la construcción de dicha pista de 4,4kms, ha votado también a favor de construir en el 2017 más de 15km de pistas, en la última reunión de la mancomunidad celebrada el 21 de octubre.

Nadie ha pedido la opinión de nuestra asociación sobre este asunto de las pistas.

Ondorengo orrialdeetan, **elkartearen iritzia publikoki agertzeko ADIERAZPENA** (egunkarietan zabaltzeko; eta ondorengo erakunde hauetara bidaltzeko: Beasaingo Alkatetza; Enirio-Aralar Mankomunitatea; Gipuzkoako Mendi Federazioa.) (**Batzarrean bozkatuko dena**)

OHARRA. Orain arte Aralarko pisten kontra sinatu duten Mendi Klubak:

Aloñamendi (Oñati), Andatza (Usurbil), Bidebieta (Donostia), Erlaitz (Irun), Girizi (Oiartzun), Gailur Haruntz (Zaldibia-zuzendaritza), Itxasmendi (Pasai Donibane), Ordiziako Mendizaleak, Ostadar (Zumarraga), Pagoeta (Zarautz), Agiro (Zestoa)

*En las siguientes páginas se muestra la **DECLARACIÓN para mostrar públicamente la opinión de Aizkorri M. E.** (para su difusión en la prensa y comunicar a las siguientes instituciones: Alcaldía de Beasain, Mancomunidad de Enirio-Aralar, Federación Gipuzkoarra de Montaña.)* (**texto para su votación**)

NOTA. Clubs de Montaña que han firmado hasta ahora en contra de la construcción de pistas en Aralar:

Aloñamendi (Oñati), Andatza (Usurbil), Bidebieta (Donostia), Erlaitz (Irun), Girizi (Oiartzun), Gailur Haruntz (Zaldibia-zuzendaritza), Itxasmendi (Pasai Donibane), Ordiziako Mendizaleak, Ostadar (Zumarraga), Pagoeta (Zarautz), Agiro (Zestoa)

Aizkorri Mendizale Elkarteak Aralarren eraikitzen hasi diren pista berriaren inguruan zera adierazten du:

1. Artzainek Aralarren egiten duten lana asko estimatzen duela. Baina artzainen irisgarritasun baldintzak hobetzea ondo iruditzen den arren, uste duela horretarako aukera bakarra ez dela 3 metro zabaleko pistak egitea 4x4-ak atoiarekin (remolkearekin) ibiltzeko.

2. Aralar Parke Naturala izateagatik, bere kudeaketaren helburua, natur baliabideak babestu, kontserbatu, leheneratu eta hobetzea dela, bereziki, natur guneak eta flora eta fauna basatiak. Gainera, kudeaketa horren printzipioetako bat bertako paisaien aniztasuna, berezitasuna eta edertasuna babestea dela. (Naturguneen Kontserbazioaren legeak -1989ko martxoak 27, «BOE» núm. 74, de 28 de marzo de 1989-).

Eta abeltzantza tresna bat dela, eta ez bakarra, Aralar kontserbatzeko.

3. Aralar ondarezko herri-mendia dela, hamabost herrietako jendearena, ez bakarrik sektore batena, eta Enirio-Aralarko Mankomunitateak bakarrik abeltzainen interesak hartu dituela kontuan oraingoan. Aizkorri Elkarteari Aralarko kudeaketa asko axola dionez zera nahi du, Mankomunitateko parte den Beasaingo udalak elkarte honen iritzia ere entzutea erabakiak hartu baino lehen.

4. Pistak eraikitzeak paisaia degradatzen duela, bere kalitatea eta edertasuna asko kaltetzen dituelako.

5. Herriko kaleetan kotxeak ibiltzeko trabak jartzen ari diren garai hauetan ez dugula onartzen orain arte pistarik egon ez den Aralarko aldean kotxeak ibiltzen jartzea. Ez dugula aldamenean kotxeak ikustea nahi Aralarrera ibiltzera joaten garenean, kotxeek ez dutelako bakarrik paisaia degradatzen, baita ere bertako giroa motor hotsak sartzearekin.

6. Aipatutako instituzioek erabakia hartzeko erabili duten prozedura desegokia ikusita Aralarren pista berriak eraikitzearen aurka dagoela.

AIZKORRI MENDI KLUBA

Beasainen, 2016ko azaroaren 18an.

Aizkorri Mendizale Elkarte en torno a la construcción de una pista nueva en Aralar expresa lo siguiente:

1. Que esta asociación reconoce la importante labor de los pastores en Aralar. Pero que aunque considere correcto mejorar la accesibilidad a los pastores, cree que la construcción de una pista de 3 metros de anchura para que circulen todoterrenos 4x4 con remolques no es la única opción para lograr dicha mejora.

2. Que el objetivo de la gestión de Aralar, por ser este Parque Natural, es proteger, conservar, restaurar y mejorar los recursos naturales, en especial, los espacios naturales y la flora y fauna silvestres. Que un principio para esa gestión es proteger la diversidad, singularidad y belleza de sus paisajes. (Ley de Conservación de los Espacios Naturales – de 27 de marzo de 1998, BOE núm. 74, de 28 de marzo de 1989-).

Y que el pastoreo es sólo un instrumento, y no el único, para lograr el objetivo de conservación de la naturaleza en Aralar.

3. Que Aralar, siendo monte patrimonial y público, es de todos los habitantes de los 15 municipios de la Mancomunidad de Enirio-Aralar, no sólo de un sector, y que dicha Mancomunidad, en esta ocasión, ha atendido exclusivamente los intereses de los ganaderos. Dado que a Aizkorri Mendizale Elkarte le preocupa la gestión de Aralar queremos que el ayuntamiento de Beasain, implicado en su gestión por ser parte de la Mancomunidad de Enirio-Aralar escuche también la opinión de esta asociación antes de su toma de decisiones.

4. Que la construcción de pistas degrada el paisaje, porque perjudican su calidad y belleza.

5. Que rechazamos la puesta en circulación de automóviles en una zona de Aralar en el que no hay pistas, ahora que se están poniendo cada vez más trabas al tráfico rodado en nuestras calles. Que no queremos tener coches a nuestro alrededor cuando vamos al corazón de Aralar, porque los automóviles degradan tanto el paisaje como el ambiente sonoro del mismo.

6. Dado el desacierto mostrado por las instituciones citadas en el proceso de la toma de la decisión, esta asociación expresa su desacuerdo con la construcción de pistas en Aralar.

AIZKORRI MENDI KLUBA

En Beasain, a 18 de noviembre de 2016.